

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

Bake epaile titularren kargua betetzeko deialdi publikoa

Alkatearen 2017ko maiatzaren 22ko erabaki bidez, bake epaile titularren kargua betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki da, ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduaren 5. artikulua araberak.

Bake epailearen kargua betetzeko ezarritako mugak kontuan hartuta, Botere Judizialaren Lege Organikoak epaile karreraren sartzeko ezarritako baldintzak betetzen dituztenek, eginkizun horretan aritzeko ezgaitasun eta bateraezintasun arrazoiek eragiten ez badiete, udaleko idazkaritzan aurkeztu ahal izango dituzte eskaerak. Horretarako, 30 egun izango dituzte, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Ezinbesteko betekizun da Erriberagoitin bizi izatea.

Guztiekin jakin dezaten argitaratzen da.

Pobes, 2017ko maiatzaren 22a

Alkatea

JESUS BERGANZA GONZALEZ